

Estropadak ilunpean

Deia, 1983-09-06.

Ez, Donostiako estropadak ez dira gauez, ilunpean, jokatzen; egun argiz baizik.

Euskalerrian bada arratsaldean jokatzen denik ere, baina Donostian eguzkia goren puntuan dagoenean irten ohi dira beti traineruak. Ia beti, igandean ez, eta zain geundenontzat minutuak orduak bezala joan zitzaizkigun eguerdi-eguerdiko ilunpe hartan.

Ilunpe honetatik begira ari nintzen atzo eguerdian. Honelakotan gizakiak berezkoa du argiaren, jakin nahiaren, eragina, eta jende artean nengoenez, gertuen zegoenari galdezka hasi nintzaion, harrigarria da, baina inork ez zekien ezer; euskaldunak izango ditugu ajeak, pilota, baina, adi ezazu, honelakoetan oso gara otzanak eta isilak. Atzoko proba dut nik neuk. Eta behar bada zu zeu han zinen, mundua baitzen! eta badakizu hainbeste. Hurrengo nire reflejoa zera izan zen: irrati hotsak nondik zetozen belarria jarri eta gertuen nuen irrati-gizonari egin nion galdera; aurpegian igarri nion linbo-linboan zegoela; pentsatu ere egin nuen euskaraz ari zen irratsaioari lotuta zegoena erdaldun hutsa zela, baina ez, biak irrati-gailua gure bi belarrien artean jarri genuenean jakin nuen irrati bidez hizketan ari zitzaiguna, nahiz eta erdera batuan iaio ari, hitzak bai esaten zituela, eten gabe! baina ez zuela zentzua duen ezer adierazten.

Eta nire belarria haren irrati-gailura hurbiltzen utzi zidan gizonari ausartu nintzen eskatzera, ia Euskadi Irratia jarri ahal zuen, FM bazuen, euskaldunon arazoak euskaraz errazago ulertzen ditugunez gero..., eta euskaraz erantzun zidan!, FM eta guzti, baina ez zuen erabiltzen, ez zekien nola; poztu ninduen honek, euskaldunarekin topatzeak, ez besteak!, eta euskara garbi-garbian hitza entzun genuenean biok pozik jarri gintzaizkion entzuten.

Zoritxarrez, ordea, hemen ere hitza asko, eta ongi ahoskatuak, baina ez genuen gertatzen ari zenaz ezer jakin ahal izan.

Hamabi t'erdia ziren dagoeneko! Hala ere oraindik bazen itxaropenik jendartean, ez baitugu geuk erremedio zahar hau inoiz galtzen.

Minutuak aurrera, gure belarriak hitzez eta eguzkiaz kiskaltzen, baina ilunpe hartatik irteteko biderik ez genuen aurkitzen.

Ordu bata jo eta aurrera zihoala, jakin genuen kolpetik ez zela estropadarik izango, ordaindutakoak galdu genituela, denbora ere bai, pazientzia laster... baina, ez al zen inor Donosti osoan gauzak nola ziren hitza esateko erresponsabilitatea sentitzen zuenik?!

Tranpak gaizki daude, hasierakoa okerrena; baina ehun mila pertsona eguerdi-eguerdian gertatutakoa ezkutuan, ilunpean gordetzea, komunikabideen "record" bat izan zen.